

## **EAEko langile publikoei erretiro primak aplikatzeko galdegiten die ELAk Eusko Jaurlaritzari zein Udal eta Foru alduendietako Gobernuari**

- **Eusko Jaurlaritzak bere 100.000 langileen erretiro primak etenda ditu 2011 geroztik, hitzarmenak eta legebiltzarrak esandakoari muzin eginez**
- **Gipuzkoako foru aldundiak eta udaletxe batzuk erretiro primak alde bakarrez kentzearekin mehatxatu dituzte bertako langileak**

Azken egunotan, Gasteizko epaitegi batek ebatzi zera ebatzi du hezkuntza publikoko irakasleen kasuan: 2011 geroztik borondatez aurre jubilatu diren irakasleek lan hitzarmenean jasota zuten erretiro prima jasotzeko eskubideari eusten diotela, eskubide hori etenda badute ere. Izan ere, epaiaren arabera, Legebiltzarrak primen etena bertan behera uzterakoan, irakasle horiek erretiro unean zegokien prima jasotzeko eskubidea dute.

Bestetik 2018an legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzari agindu zion bere menpeko esparruetan, alegia, Hezkuntzan, Osakidetzan, administrazio orokorrean eta Ertzaintzan alegia, prima horiek jasotzeko eskubidearen etenaldia bertan behera uzteko. Eusko Jaurlaritzak, ordea, Legebiltzarrak agindutakoari muzin egin, eta Lan Hitzarmenetan edo akordio erregulatzailetan jasotako eskubidea bete gabe jarraitzen du.

Gainera, ELAK jakin duenez, Gipuzkoako Foru aldundiak zein beste udal batzuek orain arte ordaintzen aritu diren eta dagozkien Lan Hitzarmenetan jasota dauden erretiro primak alde bakarrez kentzeko mehatxua egin dietela bertako langileei.

EAEko sektore publikoko 140.000 langileen kontrako eraso berri baten aurrean gaude. Negoziazio kolektibo bidez lortutako eskubide bat kendu nahi digutela Eusko Jaurlaritzak eta Udal zein Foru aldundietako gobernuek. Batzuek zuzen zuzenean gure hitzarmenetatik eskubidea ezabatuz, besteek amaigabeko arau etenaldi bidez.

ELAk, juridikoki gertatzen dena gertatu ere, argi dauka negoziatio kolektibo bidez lortutako eskubidea bete beharrekoa dela. Horregatik, juridikoki egon litezken aukerak aztertzeaz haratago, bai Eusko Jaurlaritzari, bai eta udal eta Foru Administrazioetako gobernuei zein Euskal legebiltzarreko alderdiei ere, EAEko sektore publikoan erretiro primak jasotzeko eskubidea aplikatzeko beharrezko neurriak hartzeko galdegiten die.

Honekin batera sindikatuak eskubide honen defentsan ere mobilizazioaren bidea aktibatuko du beharrezkoa den esparru guztietan.

## **ELA insta a Gobierno Vasco, Ayuntamientos y Diputaciones Forales a aplicar el derecho a las primas de jubilación en el sector público vasco**

**El Gobierno Vasco mantiene suspendidas las primas de jubilación de sus 100.000 trabajadores y trabajadoras desde 2011, contraviniendo el mandato del Parlamento y los convenios colectivos**

**La Diputación Foral de Gipuzkoa y varios consistorios amenazan a su personal con eliminar unilateralmente las primas de jubilación**

En los últimos días hemos conocido la sentencia que ha resuelto un juzgado de Vitoria para el caso del personal docente de la educación pública. En virtud de esta sentencia, los docentes que se han prejubilado voluntariamente desde 2011 mantienen su derecho a percibir la prima de jubilación contemplada en su Convenio Colectivo. De acuerdo con esto, una vez que el Parlamento deje sin efecto la suspensión de las primas, todos estos profesores tendrán derecho a la prima que les correspondía en el momento de la jubilación.

Por otro lado, en 2018 el Parlamento ordenó al Gobierno Vasco que levantara la suspensión del derecho a estas primas en los ámbitos bajo su responsabilidad, es decir, en Educación, Osakidetza, la Administración General y la Ertzaintza. Sin embargo, llegado junio de 2022, el Gobierno Vasco sigue incumpliendo el mandato parlamentario recibido en 2018 y el derecho recogido en los Convenios Laborales.

A esto se añade que tanto las Diputaciones Forales de Gipuzkoa como otros Ayuntamientos han amenazado a sus trabajadores/as con la retirada unilateral de las primas de jubilación que hasta ahora venían abonando y que están recogidas en sus respectivos Convenios Colectivos o Acuerdo Reguladores, producto todo ello de la negociación colectiva.

Estamos ante un nuevo ataque a los 140.000 trabajadores/as que conforman el sector público de la CAV. Parece bastante evidente que el Gobierno Vasco y los gobiernos de los Ayuntamientos y las Diputaciones Forales pretenden arrebatar nos un derecho adquirido por negociación colectiva. Los unos directamente suprimiendo el derecho de nuestros Convenios, los otros por la vía de una suspensión normativa infinita.

ELA, pase lo que pase jurídicamente, tiene claro que el derecho conseguido por negociación colectiva es de obligado cumplimiento. Por ello, más allá de analizar las posibilidades que puedan existir jurídicamente, insta tanto al Gobierno Vasco como a los gobiernos de las Administraciones locales y forales y a los partidos del Parlamento Vasco a adoptar las medidas necesarias para la aplicación del derecho a las primas de jubilación en el sector público de la CAE.

Junto a ello, el sindicato activará también la vía de la movilización en defensa de este derecho en todos los ámbitos en los que sea necesario.